


# Mugimendu erraza

Nola erabil daitezke gurpilak higadura txikitzeko?

## Materialak

- 2 liburu
- Edateko 5 lasto



## Zer egin

1. Jarri liburu bat mahai gainean.
2. Jarri edateko bost lastoak mahai gainean, eta beste liburua haien gainean.
3. Egin bultza bi liburuei hatz batez, mugitzeko. Zer liburu mugitu duzu errazen?

## Zer gertatzen da?

Lastoen gaineko liburua mugitzen da errazen. Lastoek gurpilen funtzioa betetzen dute, eta liburuaren eta mahaiaren arteko marruskadura (mugimenduarekiko erresistentzia) txikitzen dute. Marruskadura txikiagoa da lastoetan liburuan baino, lastoen azalaren zati txikiagoa baitago mahaia ukitzen.

